

## **XAKERAKO ARAU ESPEZIFIKOAK, 2020-2021 IKASTURTERAKOAK**

### **1. Kirol diziplinaren txapelketa jardueren izena**

Xakea Eskola Kirola

### **2. Kirol diziplinaren txapelketa jardueren joko araudiak**

Txapelketa arau berberekin egingo da, baina jokalariek ez diote elkarri eskurik emango partidaren aurretik eta haren ondoren.

### **3. Kirol federazioek antolatutako txapelketetarako edo jardueretarako jarduketa arauak**

Jokalarien artean tarte nahikoa dagoela bermatzeko, honako hau behar da:

\*Joko mahaiak.- neurriak: 75 cm zabal eta 90 cm luze; ilaratan jarrita, 260 cm eta 230 cm-ko tarte librearekin gelaren hormaraino. Mahaiak banakakoak edo lotuak izan daitezke, eta taulen artean 115 cm utzi beharko dira.

\*Taulak eta erlojuak: Taulak mahai ilaratan kokatuko dira, eta 115 cm utziko dira bataren eta bestearen artean. Ilara bakoitzeko lehen eta azken taulak mahaiaren bukaeratik 50 cm-ra egon beharko dira.

Erlojuak taula bakoitzaren alboan jarriko dira, denbora adierazten duen alde joko aretoaren alde beretik ikusteko moduan. Hau da, guztiak alde bererantz.

\*Kontrol eta epaile mahaiak:

Mahaiak komeni den moduan jarri ahalko dira joko eremuan, baina gutxienez 200 cm-ko tarte utzi beharko da joko mahai hurbilenera.

Arduradunak joko mahaietan banatuta eseri behar dira, haien artean 1,5 m-ko tarte utzita.

### **4. Parte hartzen duten entitateetan egin beharreko entrenamenduetarako eta saioetarako jarduketa arauak.**

Ez da ezer espezifikorik aurreikusten